



G30 - Espainar Kapituluko Erromako Klubeko Euskal Taldea DEIALDIA



Koldo Saratxaga Sopuertan (Bizkaia) jaio zen 1947an; Ingeniari Teknikoa da eta bi master ditu: bata, Deustuko Unibertsitatekoa, eta bestea, Madrilgo Unibertsitate Autonomokoa. Ingeniari ikasketak amaitu zituenean Vidrierías de Llodio-Villosa enpresan hasi zuen bide profesionala eta hamalau urtez hainbat sailerako buru izan zen. Hurrengo urteetan, 1984az geroztik, lehen sektoreko sustatzaile eta gerente izan zen honako hauetan: ETORKI, S. Coop.-en, EUSKADIKO KUTXAn, krisian zeuden kooperatibetan eta UROLA, S. Coop.-en; bi urte baino pasatxoan sekulako emaitzak lortu zituen. 1991tik 2005era IRIZAR S. Coop.-eko arduraduna izan zen, Irizar Proiektuko Koordinatzaile Nagusia eta Irizar Groupeko presidentea. Gaur egun, 2005. urtean K2K Emocionando, S.L. sortu zuenetik, enpresa proiektu publiko zein pribatu anitzetan (ner talde barruan dauden 20 baino gehiagotan) dihardu kontseilari eta aholkulari, erakundeetan egiteke dagoen antolamendu aldaketa errealitate bihurtuz. Era berean, erakundeek behar duten aldaketen inguruan bere pentsamendu eta sentimenduak aurkeztuz hitzaldi eta mintegiak ematen ere badihardu. Azken urteetan irakaslea da EHUUn, UDn, MUan eta NUPan, eta IESEko irakasle gonbidatua da. *Harreman-estilo berri bat* izeneko liburuaren egile ere bada. Azken urteetan Koldo Saratxagak hainbat sari jaso ditu bere ibilbide profesionala goraiatzuz.

Nolako gizartea nahi dugu?

Oraingo honetan eztabaida dinamikoa dugu proposagai. *Nolako gizartea nahi dugu?* galdera abiapuntutzat hartuta, gonbidatuak G30eko taldekideen galderak erantzungo ditu, bere esperientzia eta pentsamenduari leial. Horrela, gonbidatu eta G30eko taldekideen arteko eztabaida aberasgarria eta irekiari bide emango zaio.

Oharra: Hitzaldia gazteleraz izango da

G30 - Erromako Klubeko Euskal Taldea

Mesedez, hitzaldira etortzekoa bazara eman ezazu izena honako bi helbideetako batean:

www.clubderoma.org

grupovascoi@clubderomagv.org

M 671 666 840

DEIALDIA

Nolako gizartea nahi dugu?

Koldo Saratxaga

Data: Osteguna, 2013ko otsailaren 21a.

Ordua: 18:30 - 20:30

Lekua: CREATIVITY ZENTRUM

San Frantzisko Kalea, 40. Bilbao.

944 79 24 88

Ordaindu beharreko zenbatekoa: **15€**

Ordainketa hitzaldiaren aurretik burutu beharko da banku-transferentzia bidez
Erromako Klubeko kontu-korrontean: BBK 2095-0551-60-9109221070